

# «Eskatzen zaiguna lortzeko, kanpoko jokalariai behar ditugu»

**Amaia Ugartemendia Ohorezko Mailako Bera Bera eskubaloi taldeko kapitaina da. Bere ibilbidea eta taldearen gorabeherak izan ditugu hizpide. Denboraldi amaieran eskubaloia utziko duela esan digu.**

Raul Perez

Liga bukatzeko zortzi jardunaldi falta dira, eta laugarren postuan zaudete. Zein helburu duzue?

Ez ginen oso ondo hasi, baina gabonetatik hona, Kopakoa izan ezik, ez dugu partidarik galdu. Bosgarren postuan amaituz gero, Europan sartuko ginateke; hori da helburua. Dena dela, egun laugarren postuan gaude eta horri eutsi nahi diogu. Ez da erraza izango, alde txikia baitugu atzeko taldeekin. Gainera, Europara begira dauden beste taldeekin eta gure aurretik daudenekin jokatu beharko dugu.

Klubak kanpotar batzuk ekarri zituen udaran. Akaso, Valentziako eta Alacanteko talde indartsuenen pare egoteko...

Haiengandik gertu gabiltza, baina haien erregulartasuna falta zaigu. Noizean behin irabazten diegu, baina puntu bat gehiago falta zaigu. Udar jokari berriak etorri ziren. Dena dela, beste ba-



tzuek taldea utzi zuten; ez da gauza handirik gehitu, aldatu besterik ez da egin.

Duela laupabost urte, Bera Berak euskal jokalariai besterik ez zituen. Azken denboraldietan, berriz, kluba kanpoko jokalariai ekartzen hasi da berriro...

Etxeokoen aritzea ez da nahikoa eskatzen zaiguna lortzeko. Seigarren sailkatzen bagara, denboraldia hondamendi hutsa izan dela esango digute, eta Europarako txartela lortzen ez badugu, dirulaguntzak murriztuko dizkigute. Horrek guztiak kanpotarrak ekartzera behartzen du kluba. Hala ere, Gipuzkoan badira goraka datozen neskek. Gurekin, adibidez, batzuetan Zarauzko eta gure jubenil taldeko neska bana entrenatzen dira.

Zu zeu ere, zenbait urtez, Euskal Herritik kanpoko taldeetan ibili zara...

Errenteriako eta Hernaniko taldeetan trebatu nintzen eskubaloian. Ondoren, Bera Beran ez ezik —lehen Bidebieta izena zuen taldeak—, Madrilen sei urtez eta Galizian bi ur-

tez izan naiz. Taldeko neskek, batzuetan, aipatzen dute kanpora joan nahi luketela. Horrek, batetik, pena ematen dit, guretzat garrantzitsuak direlako. Bestetik, kanpora joatera animatzen ditut, oso aberasgarria delako. Ni 20 urterekin joan nintzen Madrilera, eta han hazi nintzen pertsona eta jokalaria gisa.

Eta erretiroa, noizko?

Izugarri gustatzen zait eskubaloia eta orain arte, nolabait esateko, ez dut erretiroa hartzeko une aproposa topatu. Azken urteetan, utzi behar nuela esaten nion nire buruari; baina taldeko giro ona ikusita, jarraitu egin dut. Hala ere, ziur asko, denboraldi honen bukaeran utziko dut. Klubean bertan lan egiten dut;

beraz, suposatzen dut gerora ere taldearekin entrenatzen jarraituko dudala. Eskubaloia faltan botako dut.

Zure lagun Reyes Karrerekin bezala entrenatzeari ekingo al diozu?

Kapitaina naizenez, entrenatzailearen eta jokarien arteko nolabaiteko zubi lan egiten ditut, baina jokalaritzat dut nire burua. Ez zait gustatzen entrenatzaile lana. Reyesi, ordea, beti gustatu zaio: jokalaria zenean ere nabari zitzaion entrenatzaile izango zela.



Amaia Ugartemendia, eskuinean 2. zenbakiarekin, Bera Berako kapitaina da

## Udaberriko Lasterketa

Hilaren 24an, igandea, Donostiarrak elkarrekin antolatutako II. Udaberriko Lasterketa jokatu da. Probak 10 kilometro ditu eta korrikalariak inoiz ere zela helmuga ibazten



izango dute. Izena Corre-Corre, Laster, Robert's, Easo Sport eta Garberako Forum Rikol denda-tan eman daiteke sei eurotan.